**3. ORDENANTZA FISKALA**

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TASA ZEHAZTEKO ALDERDIRIK NAGUSIENAK ARAUTZEN DITUENA.**

***ORDENANZA FISCAL Nº3***

***REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.***

## I.- Xedapen Orokorrak

**1. artikulua.**

Ordiziako Udalak, uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4 artikuluak ematen dion aginpideaz baliatuz hori baita Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergarena arautzen duena, ERANSKINEAN datorren koefizientea erantsi eta goian esandako artikuluko aurreneko atalean adierazitako kuota gutxienekoak jarri ditu.

## II.- Izaera eta egitate ezargarria

**2. artikulua.**

1. Trakzio Mekanikoduneko Ibilgailuen Zerga zuzeneko zerga bat da, edozein mota eta kategoriako herribideetatik zirkulatzeko gai den izaera horretako ibilgailuen titularitatea grabatzen duena, zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea Ordiziako Udalerrikoa bada.

2. Zirkulaziorako gai den ibilgailu legez ulertuko da, dagokion errejistro publikoan matrikulatua izan dena, berauetan baja egin ez dezan bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimendunak eta turismo matrikula dutenak ere barru sartzen dira.

## *I.- Disposiciones Generales*

***Artículo 1º.-***

*El Ayuntamiento de Ordizia, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 4.4. de la Norma Foral 14/1989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, fija las cuotas mínimas establecidas en el apartado 1 del citado artículo mediante la aplicación del coeficiente que se expresa en el ANEXO.*

## *II.- Naturaleza y hecho imponible*

***Artículo 2º.-***

*1. El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica es un tributo directo que grava la titularidad de los vehículos de esta naturaleza, aptos para circular por las vías públicas, cualesquiera que sean su clase y categoría, cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación corresponda al municipio de Ordizia.*

*2. Se considera vehículo apto para la circulación el que hubiere sido matriculado en los registros públicos correspondientes y mientras no haya causado baja en los mismos. A los efectos de este Impuesto también se considerarán aptos los vehículos provistos de permisos temporales y matrícula turística.*

3. Ondokoak ez daude zerga honi lotuta:

a) Modeloa zaharra izateagatik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, horrelakoentzat bakarrik antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta noizean behin zirkulatzeko baimendu daitezkeenean.

b) 750 kilogramotik gorako karga erabilgarria ez duten trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak.

*3. No están sujetos a este Impuesto:*

*a) Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los Registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitadas a los de esta naturaleza.*

*b) Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 kilogramos.*

## III.- Salbuespenak

## *III. Exenciones*

**3. artikulua.**

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

***Artículo 3º.-***

*1. Estarán exentos del Impuesto:*

*a) Los vehículos oficiales del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las Entidades Municipales guipuzcoanas, adscritos a la Defensa o a la seguridad ciudadana.*

*b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado.*

*Asimismo, los vehículos de los Organismos internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático.*

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzarako nahiz zauritu edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a’) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege

*c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.*

*d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.*

*e) Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.*

*Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.*

*Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.*

*A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:*

*a’) Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B ó C del*

ekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

*baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1.971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G ó H del citado baremo.*

b’) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

*b’) Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por 100.*

Aurreko a») eta b´) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

*A las personas incluidas en las letras a») y b») anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo 3 del mencionado Real Decreto 1.971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas».*

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.

*Quedarán también exentos del impuesto los vehículos cuyos titulares acrediten que tienen a su cargo, por razón de patria potestad, tutela o curatela, a alguna persona con un grado de minusvalía igual o superior al 65%. De ser titulares de más de un vehículo, la exención sólo se aplicará a uno.*

Desgaitasun-maila aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua onartuta, mugikortasun-maila zehazteko metodoa aldatu da; beraz, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2.e) puntua eguneratu arte, bi sistemak onartuko dira.

*Con la aprobación del Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, se ha modificado el método para determinar el grado de movilidad, por lo que hasta la actualización del punto 2.e) de la NORMA FORAL 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, se aceptarán ambos sistemas.*

f) Autobusak, mikrobusak eta hiri

*f) Los autobuses, microbuses y demás*

garraio publikoari atxikita dauden gainerako ibilgailuak, plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

*vehículos destinados o adscritos al servicio de transporte público urbano, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.*

g) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria, Nekazaritza Ikuskaritzaren Kartilaz hornituta daudenean.

*g) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inspección Agrícola.*

2. Artikulu honen 1 apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak salbuespena onartu ondoren, berau eman dela egiaztatzen duen agiria luzatuko du.

*2. Para poder aplicar las exenciones a que se refieren las letras e) y g) del apartado 1 de este artículo, los interesados deberán instar su concesión indicando las características del vehículo, su matrícula y la causa del beneficio. Declarada la exención por la Administración municipal, se expedirá un documento que acredite su concesión.*

3. Aurreko idatz-zatian jasotakoaren ondorioetarako eta artikulu honetako 1. idatz-zatiaren e) letran aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesdunek:

*3. A los efectos previstos en el apartado anterior y poder gozar de la exención a que se refiere la letra e) del apartado 1 del presente artículo, las personas interesadas:*

a) Eskaera aurkeztu beharko dute, idatziz, Udaletxeko Erregistro Orokorrean. Eskaerari honako agiriok erantsi beharko dizkiote:

*a) Junto con la solicitud, deberán presentar por escrito en el Registro General de este Ayuntamiento, la siguiente documentación:*

- Desgaitasuna duten pertsonek gidatutako ibilgailuak:
  - -Ibilgailuaren aseguruaren polizaren fotokopia.
  - -Ibilgailuaren erabilpenari buruzko zinpeko aitorpena.

- *Vehículos conducidos por personas con discapacidad:*
  - *-Fotocopia de la póliza del seguro del vehículo.*
  - *-Declaración jurada de uso exclusivo del vehículo por el discapacitado.*

- Desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak:
  - -Ibilgailuaren aseguruaren polizaren fotokopia.
  - -Ibilgailuaren erabilpenari buruzko zinpeko aitorpena.

- *Vehículos destinados al transporte de personas con discapacidad:*
  - *-Fotocopia de la póliza del seguro del vehículo.*
  - *-Declaración jurada de uso exclusivo del vehículo para el transporte de la persona con*

-Desgaitasuna duten pertsonen guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza egiaztatzen duten agiria.

*discapacidad.*
*-Acreditación de patria potestad, tutela o curatela de la persona con discapacidad.*

b) Ibilgailuaren titularrak Ordizian erroldatuta egon behar du.

*b) Los titulares de los vehículos deberán estar empadronados en Ordizia.*

c) Salbuespena emateko, ibilgailuen titularrek egunean izan beharko dituzte udal-zorrak.

*c) Para la concesión de la exención los titulares de los vehículos deberán estar al corriente del pago de las deudas municipales.*

d) Eskaera epea: abenduaren 1etik urtarrilaren 15era arte. Epe horretatik kanpo aurkezten diren eskaerek eskaera egiten den ekitaldiaren hurrengoan izango dituzte ondorioak.

*d) Plazo de solicitud: del 1 de diciembre hasta el 15 de enero. Las solicitudes posteriores a dicha fecha tendrán efecto para el ejercicio siguiente a aquel en el que se realiza la solicitud.*

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Udalak hobariak edo salbuespenak eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) NISAE elkarreragintasunerako nodoaren bidez:

*De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el ayuntamiento consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a las bonificaciones o exenciones, y en particular:*

-Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuaren datuen kontsulta.

-Foru Aldundiak: Ezgaitasun datuen kontsulta.

*-Dirección general de Tráfico: Consulta datos vehículo.*

*-Diputaciones Forales: Consulta de datos de Discapacidad.*

Dena den, Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

*No obstante, en el caso de que el Ayuntamiento en el momento de recibir la solicitud no pueda obtener la documentación necesaria de forma telemática por un problema informático, el solicitante deberá aportar la documentación para poder continuar con la gestión del expediente.*

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluaren arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu ahal izango du salbuespena edota hobaria kudeatzeko.

*De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el Ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes documentos para la tramitación de la exención o bonificación solicitada.*

Eskaerarekin batera aurkeztu den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, eskatzaileak 10 eguneko epea izango du, atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela jakinaraziko zaio.

*Si la documentación presentada junto con la solicitud fuera incompleta o defectuosa, se le requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de 10 días aporte la documentación necesaria o subsane los defectos observados, haciéndole saber que, en caso contrario, se le tendrá por desistida de su solicitud.*

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzeak eskatzaileak kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, eta beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake

*La falsedad y ocultación de datos dará lugar a la pérdida de la condición de solicitante del servicio, sin perjuicio de las responsabilidades en las que se pudiera incurrir.*

## IV.- Subjektu pasiboak

## *IV.- Sujetos pasivos*

**4. artikulua.**

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, ibilgailua haien izenean ageri denean zirkulazio baimenean, eta, orobat, testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere Arau Foraleko honetako artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean

***Artículo 4º.***

*Son sujetos pasivos de este Impuesto, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio siempre que reúnan los requisitos previstos en el artículo 1 de dicha Norma Foral.*

## V.- Kuota

### 5. artikulua.

1. Zerga, Trakzio Mekanikoduneko Ibilgailuen Zerga arautzen duen 14/1989 Foru Arauaren 4. artikuluak dakarren tarifen taularen arabera exijituko da.

2. Ibilgailu mota desberdinen kontzeptua eta tarifak ezartzeko arauak erregelamenduz finkatuko dira.

3. Ordiziako udalak, 14/1989 Foru Arauaren 4. Artikuluak ematen dion aginpideaz baliatuz, bertan ezarritako kuotak igoko ditu, ordenantza honen 1. ERANSKINean jasotako koefizienteak aplikatuta.

Aurreko paragrafoan esandako koefizientea erantsi eta eranskinean datozen tarifen arabera kobratuko da zerga.

4. Aurreko idatz-zatiko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituena. Zehazki esanda:

4.1. Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. Eranskinean jasotakoa izango da.

## *V.- Cuota*

### *Artículo 5º.*

*1. El Impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas contenido en el artículo 4º de la Norma Foral 14/1989, reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.*

*2. Reglamentariamente se determinará el concepto de las diversas clases de vehículos y las reglas para la aplicación de las tarifas.*

*3. En uso de la autorización conferida en el artículo 4º de la Norma Foral 14/1989, el Ayuntamiento de Ordizia incrementará las cuotas fijadas en el mismo, mediante la aplicación sobre las mismas de los coeficientes que se recogen en el ANEXO de la presente ordenanza.*

*En aplicación del coeficiente a que se refiere el párrafo anterior, este Impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas que se relaciona en el expresado Anexo.*

*4. A efectos de determinar las diversas clases de vehículos para la aplicación de las tarifas indicadas en el apartado anterior, se estará a lo dispuesto en el Decreto Foral 114/1999, de 21 de diciembre, por el que se determina el concepto de las diversas clases de vehículos y las reglas de aplicación de las tarifas del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica. En concreto:*

*4.1. A los efectos de este impuesto, el concepto de las diversas clases de vehículos relacionadas en las Tarifas del mismo será el recogido en el anexo II del Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, que aprueba el Reglamento General de Vehículos.*

4.2. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa ordainduko dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraia dezaketenean, kamioi gisa tributatuko baitute orduan.

*4.2. Los furgones o furgonetas, los vehículos mixtos adaptables y los derivados de turismo tributarán como turismo, según su potencia fiscal, excepto que los mismos puedan transportar más de 1.000 kilogramos de carga útil, en cuyo caso, tributarán como camión.*

4.3. Autokarabanek turismo gisa ordainduko dute beren potentzia fiskalaren arabera.

*4.3. Las auto-caravanas tributarán como turismo según su potencia fiscal.*

4.4. Edozein kasutan ere, tarifa horien D) letran adierazitako traktoreen errubrika orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.

*4.4. En todo caso, la rúbrica genérica de tractores a que se refiere la letra D) de las indicadas Tarifas, comprende a los «tractocamiones», a los «tractores de obras y servicios», así como a las máquinas autopropulsadas que puedan circular por las vías públicas sin ser transportadas o arrastradas por otros vehículos de tracción mecánica.*

4.5. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuatrizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera ordainduko dute. Kuatriziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa ordainduko dute.

*4.5. Los vehículos de tres ruedas y cuatriciclos tendrán la consideración, a los efectos de este impuesto, de motocicletas y, por tanto, tributarán por la capacidad de su cilindrada. Los cuatriciclos ligeros, a su vez, tributarán como ciclomotores-*

4.6. Ibilgailu artikulatuen kasuan batera ordainduko dute, eta arrasteko potentzia daramanak eta arrastean eramandako atoiek eta erdiatoiek bereizita ordainduko dute.

*4.6. En el caso de los vehículos articulados tributarán simultáneamente y por separado el que lleve la potencia de arrastre y los remolques y semi-remolques arrastrados.*

4.7. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala xedapen honen arabera ezarriko da: abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretua, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, V. Eranskina.

*4.7. La potencia fiscal expresada en caballos fiscales se establecerá de acuerdo con lo dispuesto en el anexo V del Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos.*

## VI.- Hobariak

**6. artikulua.-**

1. Izaera orokorrez, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik.

2. Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udalak, hobaria onartu ondoren, agiri bat egingo du eman dela frogatzeko.

3. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik zenbatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenek % 100 hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat. Hobariaz gozatu ahal izateko eskatu egin beharko da eta horretarako den eskubidea frogatuz (ibilgailuaren antzinatasuna frogatu, alegia). Subjektu pasibo onuradunek Ordizian erroldatuta egon beharko dute eta udal zorrak egunean izan beharko dituzte.

4. Ibilgailu historikotzat hartuko dira uztailaren ibilgailu historikoen araudia onartu zuen 14eko 1247/1995 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenak, ibilgailuen azterketa teknikoa arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuak egin zizkion moldaketak aintzat hartuta beti ere. Ezaugarri hauek guztiak betetzen dituzten ibilgailuak hartuko dira historikotzat:

## *VI.- Bonificaciones*

***Artículo 6º.-***

*1. Con carácter general, el efecto de la concesión de las bonificaciones empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de la solicitud y no puede tener carácter retroactivo.*

*2. Las personas interesadas deberán instar su concesión indicando las características del vehículo, su matrícula y causa del beneficio. Declarada ésta por el Ayuntamiento, se expedirá un documento que acredite su concesión.*

*3. Gozarán de una bonificación del 100% de la cuota tributaria los vehículos históricos o con una antigüedad mínima de treinta años desde la fecha de fabricación. Si no se conoce la fecha de fabricación, se considerará como tal la del primer día de matriculación. Para poder disfrutar de la bonificación será necesario solicitarlo y acreditar el derecho a ello (la antigüedad del vehículo). Los sujetos pasivos beneficiarios deberán estar empadronados en Ordizia y estar al corriente del pago de las deudas municipales.*

*4. Se considerarán vehículos históricos los que cumplan los requisitos establecidos en el Real Decreto 1247/1995, de 14 de julio, por el que se aprueba el reglamento de vehículos históricos, y que fue modificado por el Real Decreto 920/2017, de 23 de octubre, por el que se regula la inspección técnica de vehículos. Se considerarán vehículos históricos los que reúnan todas las condiciones siguientes:*

a) Gutxienez 30 urteko antzinatasuna izatea fabrikatu eta lehendabiziko matrikulatu zenetik.

b) Ibilgailuaren tipo espezifikoa jadanik ez ekoiztea.

c) Jatorrizko egoeran mantentzea eta funtsezko aldaketarik ez jasatea bere ezaugarri tekniko edo oinarrizko osagaiei dagokionez, hala nola, motorra, balazta, direkzioa, esekidura edo karrozeria.

- Antzinatasunagatik salbuespenaren gozamena eskaera egin eta hurrengo urtetik aurrera hasiko da, kontuan hartuta sortzapena urtarrilaren 1ean gertatzen dela.

5. Kotxe edo motor elektrikoek %95eko hobaria jasoko dute, ibilgailu hibridoek %50ekoa eta gasekin dabiltzanek %30ekoa, matrikulatutako datatik aurrerako lehen 3 urtetan, baldin eta horien erabilpena mesedegarria bada ingurugirorako. (aipatutako egoera, ezaugarri hau jasotzen duen zirkulazio-baimenaren aurkezpenarekin egiaztatu beharko da). Subjektu pasibo onuradunek Ordizian erroldatuta egon beharko dute eta udal zorrak egunean izan beharko dituzte.

- Erregai fosilak ez erabiltzeagatik ematen diren hobarien gozamena eskaera egin eta hurrengo urtetik aurrera hasiko da, kontuan hartuta sortzapena urtarrilaren 1ean gertatzen dela.

*a) Fue fabricado o matriculado por primera vez con una anterioridad de 30 años, como mínimo.*

*b) Su tipo específico ha dejado de producirse.*

*c) Está en su estado original y no ha sido sometido a ningún cambio fundamental en cuanto a sus características técnicas o componentes principales, como el motor, los frenos, la dirección, la suspensión o la carrocería.*

- *El disfrute de la exención por antigüedad comenzará a partir del año siguiente al de la solicitud, habida cuenta de que el devengo se produce el 1 de enero.*

*5. Gozarán de una bonificación del 95% los coches y motos de motor eléctricos, de un 50% los vehículos de motor híbridos y de un 30% los vehículos que funcionen con gas, durante los 3 primeros años desde su matriculación, si su uso es favorable para el medio ambiente. (Situación que deberá acreditarse con la presentación del permiso de circulación que recoja esta característica). Los sujetos pasivos beneficiarios deberán estar empadronados en Ordizia y estar al corriente del pago de las deudas municipales.*

- *El disfrute de las bonificaciones por la no utilización de combustibles fósiles comenzará a partir del año siguiente al de la solicitud, habida cuenta de que el devengo se produce el 1 de enero.*

6. Familia ugariaren titularitatea duten subjektu pasiboentzat ondorengo hobari-eskala ezarri da familiako diru-sarreren arabera. Familiako PFEZko aitorpenen diru-sarrera gordinen batura hartuko da familiako diru-sarrera kopuru gisa.

*6. Para sujetos pasivos con titularidad de familia numerosa se establecerá la siguiente tabla de bonificaciones en función de los ingresos de la unidad familiar. Estos de las declaraciones de IRPF de los miembros que la integran. Se obtendrán de la suma de ingresos bruto.*

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA FAMILIA UGARIEN HOBARIAK**
*BONIFICACIONES VEHICULOS TRACCION MECANICA FAMILIAS NUMEROSAS*

| | kategoria 1 0-25.552,80 | kategoria 2 25.552,811-29.332,80 | kategoria 3 29.332,91-34.927,20 | kategoria 4 34.927,21-44.604,00 | kategoria 5 44.604,01-60.000 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gehienez 3 seme-alabako familiak / Familias de hasta 3 hijos/as | % 60 | % 50 | % 40 | %30 | % 20 |
| 4 seme-alabako edo gehiagoko familiak / Familias de 4 ó más hijos/as | % 80 | % 70 | % 60 | %50 | % 40 |

Hobaria izateko baldintzak eta zehaztapenak:

*Condiciones y especificaciones para la obtención de la bonificación:*

a) Urtero aurkeztu behar da eskaera.

*a) Deberá realizar la solicitud todos los años.*

b) Zergaren Subjektu pasiboak, zergadunak, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako sailak emandako familia ugariaren titulua izatea, hobaria eskatzen den zergaldiko urtarrilaren 1ean indarrean dagoena.

*b) El sujeto pasivo deberá ostentar el Título de familia numerosa emitido por el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral en vigor a 1 de enero del periodo impositivo para el que se solicite la bonificación.*

c) Hobaria aplikatu beharreko familia osatzen duten kideen aurreko urteko PFEZa edo aurkeztera behartuta ez egotearen ziurtagiria.

*c) El IRPF del año anterior de los miembros que integran la unidad familiar a la que se le tiene que aplicar la bonificación o certificado de no estar obligado a realizar la declaración.*

d) Familia unitate bakoitzak soilik, 5 plaza edo gehiago dituen turismo batentzat izango du hobaria.

*d) Únicamente se le aplicará la bonificación a un turismo con 5 plazas o más por unidad familiar.*

e) Ibilgailuak gehienez 13,99 zaldi fiskal izan beharko ditu.

*e) El vehículo como máximo ha de tener 13,99 caballos fiscales.*

f) Familia ugari horretako kide guztiek Ordiziako etxebizitza berean egon behar dute erroldatuta.

*f) Todos los miembros de la familia han de estar empadronados en una misma vivienda de Ordizia.*

g) Eskaera epea: abenduaren 1etik urtarrilaren 15era (ondasun higiezinen zergari familia ugariei dagokien hobaria eskatzeko epe berbera). Epe horretatik kanpo aurkezten diren eskaerek ez dira kontuan hartuko.

*g) Plazo de solicitud: del 1 de diciembre al 15 de enero (el mismo que para solicitar las bonificaciones para las familias numerosas del impuesto de bienes inmuebles) Las solicitudes presentadas fuera de este plazo no se admitirán.*

h) Hobaria emateko, familia-unitateko kide guztiek egunean izan beharko dituzte udal-zorrak.

*h) Para la concesión de la bonificación todos los integrantes de la unidad familiar deberán estar al corriente del pago de las deudas municipales.*

i) Zerga-ezarraldi bakoitzean ezingo da hobari bat baino gehiago izan inoiz ere.

*i) En ningún supuesto se podrá disfrutar más de una bonificación en relación a un periodo impositivo*

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Udalak hobariak edo salbuespenak eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) NISAE elkarreragintasunerako nodoaren bidez:

*De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el ayuntamiento consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a las bonificaciones o exenciones, y en particular:*

—Foru Ogasuna: Familia ugaria osatzen duten kide guztien PFEZ kontsulta edo, PFEZren aitorpena aurkeztera behartuta ez egotearen ziurtagiria.

*—Diputación Foral: Consulta de la declaración del IRPF de todos los integrantes de la unidad familiar, o certificado de no estar obligado a reali zar la declaración.*

—Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuaren datuen kontsulta.

*—Dirección general de Tráfico: Consulta datos vehículo.*

—Eusko Jaurlaritza: Familia ugariaren tituluen kontsulta.

*—Gobierno Vasco: Consulta de los títulos de familia numerosa.*

-Foru Aldundiak: Ezgaitasun datuen kontsulta.

*-Diputaciones Forales: Consulta de datos de Discapacidad.*

Dena den, Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa

*No obstante, en el caso de que el Ayuntamiento en el momento de recibir la*

ezin badu modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

*solicitud no pueda obtener la documentación necesaria de forma telemática por un problema informático, el solicitante deberá aportar la documentación para poder continuar con la gestión del expediente.*

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluaren arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu ahal izango du salbuespena edota hobaria kudeatzeko.

*De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el Ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes documentos para la tramitación de la exención o bonificación solicitada.*

Eskaerarekin batera aurkeztu den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, eskatzaileak 10 eguneko epea izango du, atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela jakinaraziko zaio.

*Si la documentación presentada junto con la solicitud fuera incompleta o defectuosa, se le requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de 10 días aporte la documentación necesaria o subsane los defectos observados, haciéndole saber que, en caso contrario, se le tendrá por desistida de su solicitud.*

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzeak eskatzaileak kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, eta beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake.

*La falsedad y ocultación de datos dará lugar a la pérdida de la condición de solicitante del servicio, sin perjuicio de las responsabilidades en las que se pudiera incurrir.*

## VII.- Ezarraldia eta sortzapena

## *VII.- Periodo impositivo y devengo*

**7. artikulua.**

1. Zergaldia eta urte naturala bat etortzen dira, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo Trafikoan behin betiko baja ematen zaienean. Zergaldia, kasu horietan, ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, edo Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

***Artículo 7º.-***

*1. El periodo impositivo coincide con el año natural salvo en el caso de primera adquisición o baja definitiva de los vehículos. En estos casos el periodo impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición o terminará el día en que se produzca la baja definitiva en la Jefatura de Tráfico, respectivamente.*

*2. El Impuesto se devenga el primer día del periodo impositivo.*

3. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo, horiei behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja eman zaion hilabetea barne.

*3. En el caso de primera adquisición de vehículos o, en su caso, la baja definitiva de los mismos, el importe de la cuota se prorrateará por meses naturales, incluido el mes al que corresponde el día en que se produzca la adquisición o baja.*

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota hainbanatuko da, modu berean.

*También procederá el prorrateo de la cuota, en los mismos términos, en los supuestos de baja temporal en el Registro Público correspondiente por sustracción o robo del vehículo.*

## VIII.- Kudeaketa

## *VIII.- Gestión*

**8. artikulua.**

Kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den bizilekuko Udalari dagozkio.

***Artículo 8º.-***

*La gestión, liquidación, inspección y recaudación corresponde al Ayuntamiento del domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.*

**9. artikulua.**

Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuen kasuan, autolikidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen erroldaren bidez.

Aitorpen-likidazioak Udalak dituen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira. Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren nortasun agiria edo identifikazio fiskaleko zenbakia.

***Artículo 9º.-***

*El impuesto se gestiona en régimen de autoliquidación respecto a los vehículos que son alta en el impuesto como consecuencia de su matriculación y autorización para circular; y el resto de los vehículos a través del padrón anual confeccionado por el Ayuntamiento.*

*Las declaraciones-liquidaciones se efectuarán en los impresos normalizados obrantes en el Ayuntamiento. Estas declaraciones-liquidaciones contendrán los elementos necesarios para su cálculo, y se presentarán junto con la documentación acreditativa de su compra o modificación, el certificado de sus características técnicas y el Documento Nacional de Identidad o el Código de Identificación Fiscal del sujeto pasivo.*

Aitorpen-likidazioa behin bere esku duela, interesatuak bulego kudeatzailean edo entitate laguntzaile batean ordaindu ahal izango du zerga kuotaren zenbatekoa. Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du ordainketa behar den zenbatekoagatik egin dela, eta aitorpen inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

*Provisto de la liquidación-declaración, la persona interesada podrá ingresar el importe de la cuota del impuesto resultante de la misma en la oficina gestora, o en una entidad colaboradora. En todo caso, con carácter previo a la matriculación del vehículo, la oficina gestora verificará que el pago se ha efectuado en la cuantía correcta y dejará constancia de la verificación en impreso de declaración.*

**10. artikulua.**

1. Trafiko Nagusigoari matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtapena edo ibilgailu baten behin betiko baja eskatzen diotenek, aurretiaz, Zergaren ordainketa akreditatu beharko dute.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea. Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3. Trafiko Nagusigoek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretiaz Zergaren ordainketa kreditatzen ez baldin bada.

***Artículo 10º.-***

*1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del Impuesto.*

*2. Los titulares de los vehículos, cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este Impuesto, así como también en los casos de transferencia, de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo, o de baja de dichos vehículos, deberán acreditar previamente ante la referida Jefatura de Tráfico el pago del último recibo presentado al cobro del Impuesto, sin perjuicio de que sea exigible por vía de gestión e inspección el pago de todas las deudas por dicho concepto devengadas, liquidadas, presentadas al cobro y no prescritas. Se exceptúa de la referida obligación de acreditación el supuesto de las bajas definitivas de vehículos con quince o más años de antigüedad.*

*3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del Impuesto.*

## IX.- Betebehar formalak eta zerga arlokoak

**11. artikulua.**

Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

## *IX.- Obligaciones formales y tributarias*

***Artículo 11º.-***

*Las personas titulares de vehículos objeto de este tributo deben tramitar en la Jefatura de Tráfico la adecuación del domicilio que conste en el permiso de circulación al de su residencia habitual.*

## X.- Erroldak

**12. artikulua.**

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak Udalak erabakitzen duen kobrantza aldian ordainduko dira. Horren berri emango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuak argitaratuta eta legeriak aurreikusten dituen edo egoki jotzen diren bestelako baliabideak erabilita.

2. Aurreko idatz-zatian araututako kasuan, urteko errolda erabiliz bilduko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

3. Errolda edo zergaren matrikula jendaurrean erakutsiko da interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako epea hilabetekoa izango da.

Jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinarazteko balio izango du.

## *X.- Padrones*

***Artículo 12º.-***

*1. En el caso de vehículos ya matriculados o declarados aptos para la circulación, el pago de las cuotas anuales del impuesto se realizará dentro del plazo establecidos por el Ayuntamiento. Serán anuncios por medio de edictos publicados en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y por otros medios previstos por la legislación o que se crea más conveniente.*

*2. En el supuesto regulado en el apartado anterior, la recaudación de las cuotas correspondientes se realizará mediante el sistema de padrón anual. Las modificaciones del padrón se fundamentarán en los datos del Registro Público de Tráfico.*

*3. El padrón o matrícula del impuesto se expondrá al público por un plazo de un mes, para que las personas interesadas legítimas puedan examinarlo y, en su caso, formular las reclamaciones oportunas.*

*La exposición al público se anunciará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y producirá los efectos de notificación de la liquidación a cada uno de los sujetos pasivos.*

## XI.- Kuoten itzulketak

**13. artikulua.**

Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 7.3 artikuluan aipatzen den hainbanaketa aplikatuta.

## *XI.- Devolución de cuotas*

***Artículo 13º.-***

*Cuando la baja definitiva del vehículo se produzca con posterioridad al devengo del impuesto, y ya haya sido satisfecha la cuota, el sujeto pasivo podrá solicitar el importe que, por aplicación del prorrateo previsto en el apartado 3º del artículo 7 de la presente Ordenanza Fiscal, le corresponda percibir.*

## XII.- AZKENEKO ERABAKIA.

Ordenantza Fiskal hau, behin betirako onartu ondoren, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, gero egindako beste Ordenantza batek aldatu edo derogatzen ez duen bitartean.

## *XII. DISPOSICIÓN FINAL*

*La presente Ordenanza Fiscal, tras su aprobación definitiva y publicación en el BOLETÍN OFICIAL DE GIPUZKOA, entrará en vigor el 01 de enero de 2024 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.*

# ERANSKINA / *ANEXO*

## TARIFA

| **Potentzia eta ibilgailu mota**<br>***Potencia y clase de vehículo*** | **Gutxi gora-beherako Koefizientea**<br>***Coeficiente aprox*** | **Kuota**<br>***Cuota*** |
|---|---|---|
| **A) TURISMOAK / *TURISMOS*:** | | |
| 9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak<br>*De menos de 9 c. fiscales* | 1,7115 | 31,47 |
| 9 zaldi fiskaletik 11,99ra bitartekoak<br>*De 9 hasta 11,99 c. fiscales* | 2,373 | 87,28 |
| 12 zaldi fiskaletik 13,99ra bitartekoak<br>*De 12 hasta 13,99 c. fiscales* | 2,6145 | 160,27 |
| 14 zaldi fiskaletik 15,99ra bitartekoa<br>*De 14 hasta 15,99 c. fiscales* | 2,562 | 219,87 |
| 16 zaldi fiskaletik 19,99ra bitartekoa<br>*De 16 hasta 19,99 c. fiscales* | 2,6775 | 295,44 |
| 20 zaldi fiskal eta gehiagokoak .<br>*De 20 y más c. fiscales.* | 2,9715 | 400,74 |
| **B) AUTOBUSAK / *AUTOBUSES*:** | | |
| 21 toki baino gutxiagokoak<br>*De menos de 21 plazas* | 2,5725 | 214,29 |
| 21etik 50era bitartekoak<br>*De 21 a 50 plazas* | 2,5725 | 305,20 |
| 50 baino gehiagokoak<br>*De más de 50 plazas* | 2,5725 | 381,50 |
| **C) KAMIOIAK / *CAMIONES*:** | | |
| 1000kg. baino gutxiagoko zama eramateko modukoak<br>*De menos de 1.000 kg. de carga útil* | 2,5725 | 108,77 |
| 1.000tik 2.999 kg.ra bitartekoak<br>*De 1.000 a 2.999 kg de carga útil* | 2,5725 | 214,29 |
| 2.999 baino gehiagotik 9.999 kg.ra bitartekoak<br>*De más de 2.999 a 9.999 kg de carga útil* | 2,5725 | 305,20 |
| 9.999 kg. baino gehiagokoak<br>*De más de 9.999 kg de carga útil* | 2,5725 | 381,50 |

| | | |
|---|---|---|
| D) <u>TRAKTOREAK / *TRACTORES*:</u> | | |
| 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak<br>*De menos de 16 c.fiscales* | 2,4675 | 43,60 |
| 16 zaldi fiskaletik 25era bitartekoak<br>*De 16 a 25 c. fiscales* | 2,4675 | 68,52 |
| 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak<br>*De más de 25 c. fiscales* | 2,4675 | 205,54 |
| **<u>E) ATOIAK ETA ERDIATOIAK, TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK GARRAIATUAK/ *REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA*</u>:** | | |
| 750 tik 1.000 kg.ra baino gutxiagoko zama eramateko modukoak<br>*De 750 a 1.000 kg de carga útil.* | 2,5725 | 45,46 |
| 1.000 baino gehiagotik 2.999 kg.ra bitartekoak<br>*De más de 1.000 a 2.999 kg de carga útil* | 2,5725 | 71,44 |
| 2.999 kg. baino gehiagokoak<br>*De más de 2.999 kg de carga útil* | 2,5725 | 214,29 |
| **F) <u>BESTE ERA BATEKO IBILGAILUAK / *OTROS VEHÍCULOS*</u>:** | | |
| Ziklomotoreak<br>*Ciclomotores* | 2,5725 | 11,60 |
| Motoak, 125 c.c. bitartekoak<br>*Motocicletas hasta 125 c.c* | 2,5725 | 11,60 |
| 125 c.c. baino gehiagotik 250era bitartekoak<br>*Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c* | 2,5935 | 20,02 |
| 250 c.c. baino gehiagotik 500era bitartekoak<br>*Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c* | 2,6775 | 41,37 |
| 500 c.c. baino gehiagotik 1.000ra bitartekoak<br>*Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c.* | 2,772 | 85,65 |
| 1.000 c.c. baino gehiagokoak<br>*Motocicletas de más de 1.000 c.c.* | 2,8875 | 178,42 |

| **Sinatzailea**<br>Firmante | **Alkatea** Adur Ezenarro Agirre<br>El Alcalde |
|---|---|
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAF5W8M.E3Ks |